

## IZEN SINTAGMA

Perpauza edo esaldia bi atal nagusiz osatzen da: **Izen sintagma** eta **Aditz sintagma**.

Adibidez:

Txirrindulariak Urkiolara igon dira  
IS AS

Izen sintagma aditz sintagmaren barruan ere ager daiteke, subjektutzat izen sintagma NORK bat dugunean.

Adibidez:

Txirrindulari horrek lasterketa utzi behar izan du  
IS

-----  
IS NORK

-----  
AS

Izen sintagmaren barruan, osagai gisa, hauexek ager daitezke:

- **Izena:** izen sintagmaren gunea da.
- **Adjektiboa:** izenari lotua doa.
- **Determinatzaileak:** izen sintagma mugatzeko funtzioa dute.
- **Izenordaina:** izenaren ordeztzen erabiltzen da.

### IZENAK

Izenen sailkapenean bi irizpide erabiltzen dira:

1. Zehaztasunaren arabera:

- **Izen bereziak:** zerbait edo norbait bakarra, berezia izendatzen dute. Ez dute determinatzaile onartzen eta maiuskulaz idazten dira.

Adibidez: *Bilbo, Asier, Begoña, Tuter...*

- **Izen arruntak:** bakarrak ez diren kontzeptuak edo errealitateak izendatzen dituzte. De-determinatzailearen beharra dute eta minuskulaz idazten dira.

Adibidez: *mendi, txori, pentsamendu...*

Izen arruntak honela sailka daitezke:

- Izen zenbakarriak: *liburu, teilatu, katu...*
- Izen zenbakaitzak: *gose, hotz, lotsa...*

Hauek aldi berean honela sailkatzen dira:

- Izen neurgarriak: esne, ur...
- Izen neurgaitzak: maitasun, haserre...

2. Bizitasunaren arabera:

- **Izen bizidunak**: gizakiak eta animaliak. Deklinatzerakoan *-gan* atzizikia hartzen dute (*txakurrengana, medikuarengandik...*).
- **Izen bizigabeak**: beste guztiak.

ARIKETA \_\_\_\_\_

Marka itzazu laukietan ezkerretako izenen ezaugarriak.

	IZENAK				
	Berezia	Arrunta		Biziduna	Bizigabea
		Zenbatarria	Zenbakaitza Neurgarria Neurgaitza		
Zuberoa	•				•
lur					
Mikel					
orri					
bero					
beldur					
Donostia					
katu					
landare					
Karla					
alkandora					
lore					
oihartzun					
zeru					
eskola					
sagardo					
haur					
haritz					
Lorea					
gorroto					

## IZENORDAINAK

Izenak dioen bezala, izenaren orde edo izenaren ordainetan joaten den kategoria gramatikala da izenordaina.

Izenordainak askotarikoak izan daitezke. Hona beraien sailkapena:

### 1. Izenordain pertsonalak

1.1. Arruntak: *ni, hi, (hura), gu, zu, zuek, (haiek)*

1.2. Indartuak: *neu, heu, (bera), geu, zeu, zeuek, (beraiek edo eurak)*

### 2. Izenordain zehaztugabeak

2.1. Galdetzaileak: *nor, zer, zein, nortzuk, zertzuk, zeintzuk*

2.2. Mugagabeak:

- *norbait, nor edo nor, edonor, nornahi, inor, norbera, beste*
- *zerbait, zer edo zer, edozer, zernahi, ezer*
- *edozein, zeinahi*

3. **Bihurkariak**: *-en burua : neure burua, zeure burua...*

4. **Elkarkariak**: *elkar, bata bestea*

Oharra: hura, haiek, bera eta beraiek ,izan, determinatzaileak dira, baina sarri askotan izenordain funtzioan agertzen dira.

ARIKETA \_\_\_\_\_

AZPIMARRA ITZAZU HURRENGO ESALDIETAKO IZEN ETA IZENORDAIN GUZTIAK  
ETA JARRI BERAIEIEN AZPIKATEGORIA ERE

Iñaki, begira zer ekarri dudan : txakur bat !  
Iz.ber.bizid.

Nor da hori ? A, barkatu, Iraide, zeu zara.

Hori erraza da: edonork daki zer den ekuazio bat.

Inor ikusi al duzu ? Ez, baina zerbait entzun dut ate ondoan.

Badakit nor den zure lehengusina, baina ez dugu elkar ezagutzen.

Everest igotzeko ez dut neure burua prestatu ikusten.

Ni izan naiz Gernikan behin baino gehiagotan. Eta zuek?

Hori norberak erabaki behar du eta ez bestek.

ARIKETA \_\_\_\_\_

Marka itzazu laukietan ezkerretako izenordainen ezaugarriak

IZENORDAINAK					
Pertsonala		Zehaztugabea		Bihurkaria	Elkarkaria
Arrunta	Indartua	Galdetzai- lea	Mugagabea		
zu	<b>X</b>				
norbait					
elkar					
geu					
nornahi					
ezer					
geure burua					
zer					
bera					
norbera					
bata bestea					
edonor					
hi					
nortzuk					
zeure burua					
zeu					
zein					
zer edo zer					
inor					
zuek					

## DETERMINATZAILEAK

Izen sintagmako beste osagaiak mugatzeko funtzioa dute:

*Adiskideak ; Hainbat lagun ; Zazpi ate gorri ; Txabola horiek ; Diru pixka bat*

Batzuetan determinatzaile bi ager daitezke izen sintagma berean:

*Beste aldea ; Hirugarren lerroa*

Hiru sail bereizten dira determinatzaileetan:

### 1. Mugatzaileak:

1.1. Artikuluak: -a, -ak, -ok

1.2. Erakusleak: • *hau, hori, hura; hauek, horiek, haiek*

• *hauxe, horixe, huraxe; hauexek, horiexek, haiexek*

• *berau, berori, bera; berauek, beroriek, beraiek*

Oharra: <u>hura, haiek, bera</u> eta <u>beraiek</u> , izan, determinatzaileak dira, baina sarri askotan izenordain funtzioan agertzen dira.
---

### 2. Zenbatzaileak

2.1. Z. zehaztuak:

2.1.1. Zenbatzaileak: *bat, bi, hiru...*

2.1.2. Ordinalak: *lehenengo, bigarren, hirugarren...*

2.1.3. Distributiboak: *bana, bina, hiruna., mila bana, hamarna mila,...*

2.2. Z. zehaztugabeak:

• *batzuk, zenbait, asko, gutxi, anitz, ugari, nahiko, aski, franko...*

• *honenbeste, horrenbeste, hainbeste*

• *pixka bat, apur bat, makina bat ...*

2.3. Z. orokorrak: *den(a), guzti, oso, oro.*

3. Nolakotzaileak: • *zein, zeinahi, edozein*

• *zer, zernahi, edozer*

• *beste*

Oharra: nolakotzaileek ( <i>zein, beste...</i> ) izen bati laguntzen joan behar dute beti, osterantzean, hau da, bakarka doazenean, izenordain funtzioa baitute: <u>Zein</u> da zure txakurra?/ <u>Zein</u> txakur ekarri duzu? izord. nolak. <u>Besteak</u> ez dira etorri./ <u>Beste</u> lagunak ez dira etorri. izord. nolak.
--

**ARIKETA**

Azpimarra itzazu izen sintagmetako determinatzaile guztiak eta jarri beraien azpikategoriak ere. Sintagmak determinatzaile bat baino gehiago badauka, jarri hauek lerro banatan.

(Sintagmak)	1. kat.: DETERMINATZAILEAK	
	2. kategoria	3. kategoria
<u>Hamaika</u> aukera	Zenbatzailea	zenbatzailea
Gure etxe zuria		
Argazki bana		
Neska-mutilok		
Hainbeste bider		
Edozer gauza		
Lotsa apur bat		
Jende asko		
<u>Hamaikagarren</u> pisua		
Hamaikagarren pisua		
Liburu osoa		
Liburu osoa		
Beste egun bat		
Beste egun bat		
Baldintza horiek		
Jende guztia		
Jende guztia		
Liburu hauxe		
Pertsona berbera		
Makina berri hori		

**ARIKETA**-----

Marka itzazu laukietan ezker aldean azpimarratzen dauden determinatzaileen kategoria edo ezaugarriak.

DETERMINATZAILEAK								
Mugatzailea		Zenbatzailea					Nolak.	
Artik.	Erak.	Zehaztua			Zehazg.	Orok.		
		zenb.	ord.	distr.				
<u>laugarren</u>			X					
<u>egun osoa</u>								
<u>beste atea</u>								
<u>lagunok</u>								
<u>beraiek</u>								
<u>apur bat</u>								
<u>zazpina</u>								
<u>lau</u>								
<u>dena</u>								
<u>edozein ate</u>								
<u>hainbeste</u>								
<u>diru gutxi</u>								
<u>leihoa</u>								
<u>haize hura</u>								
<u>zenbait kasu</u>								
<u>beste eguna</u>								
<u>bigarren</u>								
<u>lan batzuk</u>								
<u>bederatzi</u>								
<u>gau guztiak</u>								

## ARIKETA

---

Bila itzazu beheko testuetan dauden izenak, izenordainak eta determinatzaileak.

Zer da udaberria?  
Naturaren ispilu garbia,  
izadia berpizten duen irria,  
alaien alaigarria,  
tristeen kontsolagarria:  
edonor aztoratzen duen sasoi berria.

\* \* \* \* \*

Furra, furra, fandangua  
hortxe duzu fandangua  
geure gustukua.

Gaur goizean jaiki naiz  
suerte onean,  
tanke bat topatu dut  
neure kafesnean;  
Ez dakit zer daukagun  
bakea ala gerra  
baina nik badaezpadan  
egin dut puzkerra.

Zerbait egitekotan  
zuzen eta artez  
zorri bat garbitu dut  
ur pistola batez,  
orain galdurik nago  
beldurrez beteta  
muniziorik gabe  
gelditu naiz eta.

\* \* \* \* \*

### **Txinar bi**

Munduan lau lagunetik bat txinarra da. Mila milioi lagun badira. Hango guraso batzuek ume bakarra ekartzen dute mundura. Legeak ez die uzten gehiago ekartzen. Baina badira salbuespenak. Txinako zientzilari eta intelektualek badute bi haurtxo munduratzeko aukera. Legeak uzten die hori egiten. Zergatik? Horrela hobetu egingo omen da biztanleriaren kalitatea. Bestela, pentsa, ia jaio berri guztiak analfabeto eta txiroen ume!

## ADJEKTIBOAK

Izenari nola edo hala laguntzen agertzen den kategoria dugu adjektiboena.

Hiru adjektibo mota dira, aski desberdinak:

- **Izenlagunak:** izenaren ezkerretara jartzen dira eta -ko eta -en (NONGO eta NOREN) atzizkiak erabiltzen dituzte izenarekin lotzeko.
- **Izenondoak:** izenaren eskuinaldean jartzen dira eta izena kalifikatu egiten dute.
- **Aposizioak:** izen edo izen sintagmak dira, izan; baina izena kalifikatzen agertzen direnez, adjektibo mota bat osatzen dute.

Esandakoa bilduz, hona hemen adjektiboen sailkapen-ezaugarriak:

ADJEKTIBOAK		
Motak	Ezaugarriak	Adibideak
IZENLAGUNAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izenaren ezkerretara</li> <li>• <u>-ko</u> eta <u>-en</u> lotura gisa</li> </ul>	<u>hormaren</u> kolorea <u>Bilboko</u> museoak
IZENONDOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izenaren eskuin aldean</li> </ul>	etxe <u>handia</u> , neska <u>jator</u> hori
APOSIZIOAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Izen sintagmak dira</li> <li>• Beste izen bat kalifikatzen dute</li> </ul>	Aitor <u>matematika irakaslea</u> Itziar <u>zure auzoko laguna</u>

**ARIKETA**-----

Ezkerretara dauden sintagmetako adjektiboak azpimarratu eta sailkatu, dagokien zutabeen gurutze bat ipiniz.

	Izenlagunak	Izenondoak	Aposizioak
<u>Lapikoaren</u> kirtena	X		
Ikasleentzako inprimakia			
Ordenadore zaharra			
Liburu erakargarria			
Lorea liburudenda			
Gernikako arbola			
Usain atsegina			
Ane Donostiakoa			
Sute handiak			
Iazko ikasturtea			
Iritzi sakona			
Etorkizunerako Euskal Herria			
Katu laztankor hori			
Eguraldi eguzkitsua			
Euskara,hizkuntza zahar hau,			
Iluntasunaren beldurra			
Patxi errementaria			
Patio gorria			
Zurezko aulkiak			
Txikitako kontuak			

<b>Izenondoak: zehaztapen batzuk</b>
--------------------------------------

## 1. Hitzen kategori aldaketak

Azter itzazu hurrengo perpausetan azpimarratzen daudenak:

- «Eguraldi beroa»
- «Ikasle saiatua da hori»
- «Txakur deabru horrek haginka egin dit!»

Zer dira, berez, bero, saiatu eta deabru? Begira ezazu hiztegia zein den euren kategoria gramatikala... Hori al da goiko esaldietan dutena? Garbi dago kategori aldaketa jasan dutena, goian izenondo bezala aurkitzen ditugu-eta.

## 2. Izenondoaren mailaketa

Begira ondorengo adibideei:

- Ume polita / Ume polit-polita
- Emakume gaztea / Emakume gaztetxo
- Zulo handia / Zulo oso handia
- Atsedeen txiki bat / Atsedeen txikiegi bat
- Zaldi ederra / Zaldi ederragoa
- Egun ederra / Egun(ik) ederrena

Goiko esaldi bikoteetan, ezkerretako izenondoa nolabait mailakaturik ageri da eskuinaldeko adibidean. Azpimarra itzazu adjektibo eta sintagma adjetibal guztiak.

Ondoren, izenondoaren mailaketan agertzen direnen zerrenda duzu. Jar ezazu zeuk baliabide bakoitzeko adibide pare bat ondoan

MAILAKETA MOTA	ADIBIDEAK
• Errepikapena	
• Txikikaria (- <u>txo</u> )	
• Maila adberbioak ( <u>oso</u> , <u>nahiko</u> , <u>batere</u> , <u>guztiz</u> , <u>ikaragarri</u> , <u>samar</u> ...)	
• - <u>ago</u> atzizkia	
• - <u>en</u> atzizkia	
• - <u>egi</u> atzizkia	

## ARIKETA \_\_\_\_\_

Bila itzazu beheko testuetan dauden izenak, izenordainak, determinatzaileak eta adjektiboak (izenlagunak, izenondoak eta aposizioak bereiziz).

### **Adio koralezko arrezifei**

Koralezko arrezifeak munduko ehun eta bederatzi herrialdetan daude, eta laurogeita hamarretan galzorian. Hori dio Naturaren Aldeko Munduko elkarteak. Zergatik? Hiru dira arrazoi nagusiak. Bata itsasertzean hotelak eta kaiak nolana ere arkitzen direla. Bi, arrantzan, batzuetan, dinamita erabiltzen dela eta hirugarren, basoa urritzen denan, sedimentazioa sortzen dela, eta horrek kalte egiten diola itsasoari. Koralezko arrezife bakar batean itsas-espezie asko bizi izaten dira, 3.000 kasu batzuetan.

**Neskak mutilak baino zuhurragoak** dira eta kirola egiteko oinarrizko abildadeetan gainera, hobeak; hala nola neurri-distantziak kalkulatu behar direnean, oreka gorde behar denean etab. Hamar urte bete bitartean indarrean besterik ez dira nagusitzen mutilak baina hortik aurrera, martxan dauden txapelketa guztietan mutilen esku dago kirola. Eskolak egiten du bazterketa hori, gurasoek, gizarteak. «Uste dut Gurasoen Eskolak antolatu beharko genituzkeelagauzak aldatzeko» dio Gorputz Heziketako irakasle batek.

## ARIKETA

---

Bila itzazu beheko testuetan dauden izenak, izenordainak, determinatzaileak eta adjektiboak (izenlagunak, izenondoak eta aposizioak bereiziz).

Lehen irakurtaldian azpimarratu eta ondoren jar itzazu behealdean zerrendan, bakoitzari dagokion kategoria idatziz. Kantatu ere egin behar da, jakina!

### **Donostiako hiru damatxo**

Donostiako hiru damatxo  
Errenterian dendari (bir.)  
josten ere badakite baina  
ardoa edaten hobeki  
eta krixkitin-kraxkitin  
larroxa krabelin  
ardoa edaten hobeki.

Donostiako Gaztelupeko  
sagardoaren gozoa  
hantxe edaten ari nintzala  
hautsi zitzaidan basua  
eta krixkitn-kraxkitin  
larroxa krabelin  
basua kristalezkoa

- Donostiako:
- Hiru:
- .....
- .....

## ADBERBIOAK

Adberbioak Aditz Sintagman kokatzen dira eta denbora, leku edo moduzko kontzeptu bat adierazten dute:

<u>Trena</u>	<u>berandu</u>	<u>etorri da</u>
	Adb.	
IS	AS	

Beste modu batera esanda, NOLA, NOIZ, NON, NONDIK, NORA, ZERGATIK, NOREKIN, ZEREZ, NORANTZ edo NORAINO galderei erantzuten dieten guztiak dira adberbioak. Hauek gehienak dira, baina badira beste batzuk ere, hala nola *noski, guztiz...*

Euren eraketari begira bi motatako adberbioak ditugu:

ADBERBIOAK		
Motak	Ezaugarriak	Adibideak
<b>ADITZONDOAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berez dira adberbioak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ondo, txarto...</li> <li>• Laster, orain, bihar...</li> <li>• Hemen, hara...</li> <li>• Behinik behin, noizbehinka...</li> </ul>
<b>ADIZLAGUNAK</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Berez <u>ez</u> dira adberbioak</li> <li>• Adberbiotasuna deklinabide atzizkiez edo posposizioen (*) bidez lortzen duten ISak dira</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxean</li> <li>• Zure gurasoengatik</li> <li>• Kale ilun hartatik</li> </ul>

(\*) **Posposizioak** funtzio bereziak egiten dituzten izen batzuk dira, hala nola: *azpi, gain, alde, kontra, barru, arte, atze, bitarte, inguru, zehar...*

Adibidez: Teilatuaren gainean  
posp.

-----  
adizlaguna

**ARIKETA** -----

Ezkerraldean dituzun esaldietan, bilatu eta azpimarratu adberbioak. Ondoren, jarri ondoko laukietan zein motatakoak diren.

	ADBERBIOAK	
	ADITZONDOAK	ADIZLAGUNAK
<u>Zazpi lagunekin</u> dator		X
Gaur ez dator Amaia		
Liburuak hemen daude		
Berandu heldu zarete		
Asier gurekin etorriko da		
Behinik behin ez gara nekatu		
Berehalaxe amaituko duzue		
Karneta nahitaez ekarri behar da		
Astiro-astiro pasatu zen		
Paketea dagoeneko heldu da		
Ni etzi joango naiz		
Aititaren ondora noa		
Hormak zuriz margoztuko dira		
Parkearen ondoan gelditu ginen		
Aurten jende asko etorri zaigu		
Ate nagusitik sartu dira		
Ustekabean harrapatu gaituzte		
Min hartu du belaunean		
Irakasle horrekin egon gara		
Donostian izango da jaia		

## ADIZLAGUNAK

Deklinabide atzizki edo posposizio bidez eratzen direla esan dugu.

Honela sailka ditzakegu:

### 1. Lekua edo denbora adierazten duten adizlagunak

Atzizkiak: -n, -ra, -tik.

Adibidez:

*Belaunean hartu dut kolpea.*

*Tximiniatik jaitsi omen da.*

*Goizetik joan da etxera.*

### 2. Beste deklinabide atzizkiez eratzen diren adizlagunak

Atzizkiak: -ekin, -z, -gatik, eta -entzat.

Adibidez:

*Bere aitarekin etorri da.*

*Urdinez margotu behar dira.*

*Jostailuengatik haserretu dira.*

*Amamarentzat ekarri ditut.*

### 3. Posposizio bidez eratzen diren adizlagunak

Atzizkiak: -n, -ra, -tik eta  $\emptyset$

Adibidez:

*Parkearen ondoan aparkatu du.*

*Zuhaitzen artetik joan da korrika.*

*Autoaren azpira joan zitzaion baloia.*

*Hamar urte barru itzuliko dira.*

## ADITZONDOAK

Aurrerago esan bezala, aditzondoak gehienetan deklinabide atzizkirik gabe agertuko dira.

Adibidez:

*Nerea ondo dabil aspaldion.*

*Aurten ez dugu eguraldi onik izan.*

*Horrek beti esaten du egia.*



Hala ere, inoiz har dezakete deklinabide atzizkiren bat, hauetan bezala:

*Julenek betitik daki euskara.*

*Lana etzirako ekarri behar da.*

*Gaurko egongo zela esan zuen.*

Aditzondo batzuek, izenondoek bezala, -en, -ago eta -egi atzizki graduatzaileak har ditzakete.

Adibidez:

*Goizago etorri beharko zenuke.*

*Astiroegi goaz.*

*Gaur zeu heldu zara beranduen.*

*Harago joan behar duzu.*

Bestalde, **maila adberbioak** ere aditzondoak dira. Hauek izenondoen nahiz adberbioen mailaketarako erabiltzen dira:

Adibidez:

*Nahiko txarto egon naiz egunotan.*

*Jokaldia oso ederki amaitu du.*

*Horiek guztiz aspertuta daude.*

Bukatzeko, zenbait aditzondok atzizki intentsiboak ere har ditzake.

Adibidez:

*Honelaxe egiteko agindu du.*

*Hantxe egon da.*

*Oraintxe joango gara.*

### Aditzondo motak

**1. Denbora aditzondoak:** noiz galderari erantzuten diote.

Hona batzuk: *noiznahi, edonoiz, inoiz, noizbait, atzo, gaur, gero, bihar, etzi, herenegun, berriro, beti, dagoeneko, jadanik, sekula, egundo, orain, orduan, lehen, laster, behin, maiz, batzuetan, askotan, txikitan, honezkero, urtero, egunero...; noiztik hona, noizean behin, lehenbailehen, noiz edo noiz, gero eta goizago...*

**2. Leku aditzondoak:** non galderari erantzuten diote eta bai nora, norantz, noraino eta norako galderei ere.

Zenbait adibide: *hemen, hortik, harako, bertan, handixek, edonon, nonahi, norabait, inon, nonbait, hurbil, urrun...; han-hor-hemen, nondik edo handik, hor nonbait...*

**3. Modu aditzondoak:** nola (zelan) galderari erantzuten diote.

Hona hemen batzuk: *nolabait, edonola, edozelan, inola, nolanahi, honela, horrelaxe, halatsu, ederki, poliki, gaingiroki, astiro, apurka, egiazki, ozenki, ederto, politico, txarto, berriro, emekiro, harrika, korrika, alferrik, isilik, pozik, adibidez, alderantziz, ustekabean, gustura, asperturik, nekatuta...; nola edo hala, hain zuzen ere, bide batez, argi eta garbi, batez ere, atzekoz aurrera, bene-benetan, itsu-itsuan, bete-betean, gero eta txarrago...*

**4. Maila adberbioak:** graduatze edo mailakatze funtzio dute.

Adibide batzuk: *batere, guztiz, aski, biziki, dexente, erabat, erdi, itzel, izugarri, ikaragarri, lar, nahiko, oso, txit, samar, sobera, zeharo...*

**5. Iritzi aditzondoak:** hiztunaren jarrera edo iritzia zehaztu egiten dute.

Hona batzuk: *agian, antza, jakina, itxuraz, nonbait, noski, apika, akaso, agidanez...; dudarik gabe, inola ere...*

**6. Partikula adberbialak:** aditzari loturik azaltzen dira, honen esanahia apur bat aldatzen dutela. Ikus ditzagun garrantzitsuenak banan-banan:

#### AL

Galderak eratzeko erabiltzen da. Ez da beharrezkoa, baina jarriz gero bestelako entonazioa ezartzen zaio perpausari.

Adibidez:

*Emango al didazu behingoz?*

*Ez al dakite ezer?*

#### BIDE

Ziurtasunik gabeko ideia edo gertakizun bat dela adierazten du.

Adibidez:

*Urik gabe geratu bide dira .(Antza denez)*

*Lantegia itxi bide dute .(Dirudienez)*

## OMEN, EI

Geure begiez ikusi edo geure belarriez entzun ez dugun zerbaiten berri ematerakoan erabiltzen da.

Adibidez:

*Jakintzagai guztiak gainditu omen ditu..* (Hori esan digu)

*Ez ei da etorriko jaialdira..* (Hala entzun dut)

## OTE

Aldi berean galdera eta zalantza adierazten ditu.

Adibidez:

*Lortuko ote du gailurrera iristea?*

*Ez ote dago etxean, lotan?*

## ERE

Bere ezkerretara dagoen elementua nolabait markatu egiten du, horren pareko beste zerbait badagoela adieraziz; ez dauka, beraz, toki finkorik esaldian.

Adibidez:

*Aitor ere pozik etorri da zinematik.* (Jon eta Amaia bezala)

*Aitor zinematik ere pozik etorri da.* (Museotik eta menditik bezala)

*Aitor pozik ere etorri da.* (Nekaturik ere bai)

## OHI

Ohiturazko zentzua, maiztasuna agertzen du.

Adibidez:

*Astero egin ohi ditugu horrelako bilerak.*

*Lagunekin igandero irten ohi zen perretxikotara.*

ARIKETA \_\_\_\_\_

Marka ezazu hurrengo adberbioen azpikategoria.

ADBERBIOA						
ADIZLAGUNA	ADITZONDOA					
	denbo -ra	lekua	modua	maila	iritzia	partikula
etxetik	X					
orduan						
halabeharrez						
noiz edo noiz						
ustekabeen						
kalean						
guztiz						
poliki						
jakina						
inola ere						
oso						
agian						
belarrian						
gaur						
batere						
dagoeneko						
astiro						
omen						
ikaragarri						
aurten						